

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure produktua, baso anti-droga, gaur egungo jai-giroetako eta oso normalizatua dauden arazo larriak (bortxaketak, lapurretak...) konpontzeko tresna egokia iruditzen zaigu.

Begi bistakoa da oraindik eraso sexista eta iruzur ugari ematen direla gure jai-arloetan. Biktimak (gehienetan emakumeak) ahultzeko asmoz, oraindik droga erasoak gertatzen dira: biktima konturatu gabe, haren edalontzian drogaren bat botatzen dute. Horrela, biktimak baldintzak edo ukapenak ezin izango ditu jarri eta bere gain kontrola hartzen dute berarekin era aske batean jokatu ahal izango dute.

Jaietako eta txosnetako baso arruntekin alderatuz, gure produktuak eskainitako zerbitzu berria zenbait droga identifikatzea da. Gure basoak ingurumena babestuko du, berrerabili daitekeelako eta material biodegradagarri batekin eginda dagoelako. Modu honetan, zure segurtasuna handituko du, era seguru eta erosoagoan disfrutatu ahal izanik.

Edalontziaren materialak droga detektatzean, basoa desegin egingo litzateke. Basoaren jabeak droga ahoratzea ekidituz.

Horretaz gain, mosketoi bat edukiko du basoak, edozein tokitara eramateko eroso eta lapurtzeko zailagoa izan dadin.

